



AGINDUA, 2024KO APIRILAREN 17KOA, EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUARENA, EKONOMIA ETA OGASUN SAILAREN 2024-2027 LAURTEKORAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKOA

Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua («Dirulaguntzen arloko plangintza eta ebaluazioa») xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren dirulaguntzen jarduna alde aurretik planifikatu behar da, eta horretarako lau urteko indarraldia izango duen plan estrategiko bat egin beharko da. Plan hori sail bakoitzeko titularrak onartu beharko du.

Ekonomia eta Ogasun Sailak, horrenbestez, eskatutako plana egin du, artikulua horrek zehaztutako edukiekin eta lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 9. artikulua araberako sail horri dagozkion egitekoetan eta jardun-arloetan oinarrituta. Dekretu hori, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeari eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeari buruzkoa da. Planak barne hartzen ditu Finantza Politikako Zuzendaritzak eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ematea aurreikusitako dirulaguntzak, organo horiek baitira sail honetan 2024-2027 aldian dirulaguntzak emateko ahala izango duten bakarrak.

Hala, ikuspegi orokor bat eskaintzeko, efikazia eta efizientzia hobetzeko, eta publikitatea eta gardentasuna errazteko, plan honek 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusiak onartzeari buruzko abenduaren 22ko 21/2023 Legeak xedatutakoak ere hartu ditu kontuan.

Hori horrela, otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak (Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) ematen dizkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2024-2027 laurtekorako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea, agindu honen eranskin gisa jartzen baita.

Bigarrena. Onartutako plana Ekonomia eta Ogasun Sailaren webgunean argitaratzea, «planak eta proiektuak» atalean, bai eta ordenamendu juridikoan informaziorako eta gardentasunerako aurreikusitako tresnetan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilak 17.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua.
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE

ERANSKINA

Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2024-2027 laurtekorako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

I. Sarrera

Plan hau sail honen politika antolatzeko tresna da, helburu baitu onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea edo xede publikoak lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzak emanez.

Nabarmendu beharra dago plana programatikoa dela, eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Izan ere, plana eraginkorra izan dadin, hainbat dirulaguntza-lerro gauzatu beharko dira, besteak beste, ekitaldiko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Plan hau prestatzeko, jomuga diren interes publikoak aztertu dira, eta 2024-2027 aldirako izango diren baliabideekin alderatu. Hala, geure jardute-eremuan efikazia eta efizientzia indartuko ditugu, eta gardentasuna sendotu.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Ekonomia eta Ogasun Sailak (aurrerantzean, EAEAO) Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egin du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritakoaren arabera, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Dirulaguntzen Plan Estrategikoei buruz emandako 01/15 Zirkularreko jarraibideak oinarri hartuta.

II. Planaren eremu objektiboa, instituzionala eta iraupena.

Ekonomia eta Ogasun Sailak bere eskumenak erabiliz kudeatzen dituen dirulaguntzak biltzen ditu plan honek. Lehendakariak Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko emandako irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan daude eskumen horiek jasota, eta 9. artikuluan bere egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dizkio honako alor hauetan: finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak, berme emateak, aseguru bitartekotza-jarduera kontrolatzea, gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eta eskualde-politika.

Planak, era berean, barne hartzen du Alberto Alberdi saria, EAEko Ekonomiari buruzko Doktorego Tesi Onenarena, bi urtean behin egiten den deialdia (lehen ediziorako deialdia Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez egin zen, zeinaren bidez onartzen baitira EAEko Ekonomiari buruzko doktorego-tesi onenaren Alberto Alberdi Sariaren I. edizioaren oinarriak eta deialdia). Sari hori dirulaguntzat jotzen da, 20/2023 Legearen 3.2.b) artikuluan («Dirulaguntzaren kontzeptua») xedatutakoaren arabera; izan ere, sari hori emateko hautagaiak alde aurretik eskatu behar du.

Planak, bestalde, sail honen bidez emandako abalak eta bestelako bermeak jasotzen ditu. Tresna horiek berariazko araudiaren arabera erregulatzen badira ere eta ez badira ere dirulaguntzaren kontzeptu zorrotzaren barruan sartzen, EAEAOk sustapen-neurri gisa erabiltzen dituenean, 20/2023 Legearen 7. artikulua oro har dirulaguntzetarako ezarritako publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak bete behar ditu.

Denbora-eremuari dagokionez, planak 2024-2027 aldirako aurreikuspenak jasotzen ditu.

III. Planteatzen diren helburu nagusiak.

Sail honek askotariko helburuak bete nahi ditu sustapen-jarduerarekin, 18/2020 Dekretuak esleitutako eskumen-eremuak kontuan hartuta:

1.- Unibertsitateak EAEko ekonomiari buruz dauzkan ezagutzak aprobetxatzea, Alberto Alberdi sariaren bidez.

Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 10.1.i) artikulua Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari esleitzen dizkion eginkizunen artean dago honakoa: «Ikerketa ekonomikorako metodoak garatzea; bereziki, EAEko ekonomiarako ereduak eta ekonomia horren sektore edota segmentuetarako ereduak».

Unibertsitate-eremuan egiten diren ekonomia-ikerketak, hala teorikoak, nola aplikatuak, eragile publikoetara bideratu behar dira, eta haietan txertatu, eragileok baliatu ahal izan ditzaten herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak hobetzeko erabakiak hartzerakoan. Horrela, agerian geratzen da EAEAOrentzat zenbateko garrantzia duen unibertsitate-esparru horrekiko harremana sustatzeak.

Saria ematea, arlo horretan doktorego-tesi bat egiteak eskatzen duen ahalegin pertsonala, konpromisoa eta lan gogorra publikoki aitortzeko ez ezik, honako helburu hauek lortzeko tresna ere izango da:

- a) Ikerketa-ahalmena azalratzea eta arlo ekonomikoan talentua eta interesa duten gazteak topatzea, eta horien ikertzaile-ibilbide hasiberria erraztea.
- b) Ekonomia aplikatuaren ikerketa bultzatzea eta gure gazteen adimen-gaitasuna eta talentua aprobetxatzea EAEko ekonomia hobetzeko.
- c) Mundu akademikoaren eta administrazio publikoen artean zubi iraunkorrak sortzea, ateak irekiz eta beren asmamena ekonomia berritzeko eta ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko eredu, tresna eta teknika berriak sortzera bideratzen duten pertsonak sarituz.
- d) Gure gazteriaren hausnarketa eta azterketa gogotsu eta independenteak aprobetxatzea, ekinbide publikoa hobetzeko balioko duten azterlan onak izateko.

2.– Borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta bultzatzea.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeak 78. artikuluan ezartzen du Eusko Jaurlaritzak sustapen-neurriak jarriko dituela, borondatezko gizarte-aurreikuspenaren inguruko kontzientzia zabaldu dadin herritarren artean eta, bereziki, enpresen, langileen eta gizarte-eragileen artean. Xede hori betetzeko asmoz, unibertsitateekin, sindikatuekin, enpresaburuen elkarteekin eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sektorearekin lankidetzeta-programak aurrera eramatea proposatuko da. Bestalde, aipatu legearen 75. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, federazioei honako funtzio hauek dagozkie, besteak beste: aholkularitza eta asistentzia juridiko-fiskala, kontabilitatekoa, ekonomiko-finantzarioa eta teknikoak, eta interes orokorreko beste edozein arlotakoa, eta, era berean, borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta horri buruzko prestakuntza bultzatzea.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrek Euskadiko Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko erakundearen Federazioari dirulaguntza izendun bat emango diotela aurreikusten dute, federazioak gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzen eta jendarteratzen egiten duen lanak eragindako gastuak ordaintzeko (aurrekontu orokor horiek abenduaren 22ko 21/2023 Legearen bitartez onartu ziren). Era berean, dirulaguntza hori hurrengo lau ekitaldietan ematea aurreikusten da (zeina federazio horri eman baitzaio eratu zen unetik), kontsumoko prezioen indizearen (aurrerantzean, KPI) igoerekin.

Bestalde, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko erakundeak arautzen ditu. Erakunde horiek pentsio osagarri nahikoak eratzeko moduko estandar egokiak izango dituzte, eta, izan ere, horiek izango dira Finantza Politikako Zuzendaritzak sustatu nahi dituen BGAE modalitateak. Horren arabera eta abenduaren 12ko 252/2006 Dekretua (borondatezko aurreikuspen sozialeko erakundeak baliatuta bideraturiko aurreikuspen sozialeko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen) oinarri hartuta, lehentasunezko enplegu modalitateko lehentasunezko BGAE berriak eta gizarte-aurreikuspeneko planak eratzeko laguntza eman nahi da. Laguntza horien helburua da aipatutako arauen babesean eratzten diren aurreikuspen-sistemak eratzeko eta martxan jartzeko gastuak estaltzen laguntzea, bai eta horien aurreko gastuak ere; eta, era berean, zuzeneko laguntza emango zaie lehentasunezko erakunde berrian edo lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko plan berrian sartzen diren bazkideei.

Une honetan, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeentzat gaur egun indarrean dauden dekretuak aldatzen dituen 2024ko otsailaren 29ko Dekretu berria onartu eta gero, eta lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko tresnak sustatzeko asmoarekin (tresna horiek estaldura bermatzen diete ekarpen partekatuak eta kotizazio-karrera luzeak dituzten eta prestazioak errenta moduan kobratzen dituzten langile guztiei), gizarte-segurantzaren lehen zutabeko pentsioa osatze aldera, behar-beharrezkoa da partida horiekin jarraitzea hurrengo lau ekitaldietan, gutxienez.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legeak gizarte aurreikuspen osagarria sustatzeko partida bat aurreikusten du.

Ilido horretatik, Eusko Jaurlaritzak, 2023an, zuzeneko dirulaguntza eman zien Bilboko, Arabako eta Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko ganbera ofizialei, lehentasunezko eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sistema bat eratzeko Euskal Autonomia Erkidegoko norberaren konturako langileen edo autonomoen kolektiboarentzat, hitzarmen baten bidez gauzatu. Hitzarmen honek honako jarduera hauek egiteko zuzeneko dirulaguntza bideratzen du: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroa sortu, eratu eta inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko beren konturako langileentzat edo autonomoentzat gizarte-aurreikuspeneko sistema bat abian jartzea, eta sistema horren jarraipena egitea eta sistemak behar izan ditzakeen egokitzapenak aztertzea, kolektibo horren lehentasunezko lanaren gizarte-aurreikuspen osagarria zabaldu eta orokortzeko azken helburuarekin. Zuzeneko dirulaguntza 2023. urtearen amaieran eman zenez eta hura gauzatzeko hitzarmena ere orduan sinatu zenez, 2024. urterako helburu bererako edo antzekorako beste dirulaguntza bat (gutxienez) ematea aurreikusten da, eta ez da baztertzeko hurrengo ekitaldian luzatzea, ordurako ez bada autonomoentzako aurreikuspen-sistema abian jartzen edo beharrezkotzat jotzen bada sistema hori sustatzea. Jarraitutasun hori egiteko gehieneko zenbatekoa bera izango da.

Era berean, kooperatibisten arteko gizarte-aurreikuspeneko sistema bat bultzatu nahi da Lan eta Enplegu Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzarekin lankidetzan, eta, zehazki, KONFEKOOPEkin (Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa) lankidetzan. Konfederazio horrek hitzarmen bat sinatu du Laboral Kutxarekin, Mondragon Korporaziokoak ez diren bazkide kooperatibistak Izarpension BGAEan, enpleguaren BGAEan sartzeko. Erakunde horrek jasoko luke dirulaguntza. Horretarako, dekretu honen laguntzetara bideratutako partida erabiltzea proposatzen da: 252/2006 Dekretua, abenduaren 12koa, zeinaren bitartez Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak baliatuta bideraturiko aurreikuspen sozialeko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak arautzen baitira.

3.– Aseguru-bitartekaritzaren jarduera sustatzea eta garatzea.

Urtarrilaren 23ko 6/2024 Dekretuaren 3. artikuluan (6/2024 Dekretua, urtarrilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru- eta berraseguru-banantzaileen Administrazio-erregistroa sortu eta arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera gainbegiratzeko dena) berariaz jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Aseguru Bitartekarien EAEko Kontseiluaren arteko lankidetzan, zuzenbide publikoko korporazioa den aldetik.

Banatzailen prestakuntza-beharrak nahitaez ezartzen dira otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuan, zeinak aseguru eta berraseguru pribatuen banaketari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 20ko 2016/97 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten baitu.

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aseguru Bitartekari Tituludunen Elkargoek osatzen duten Kontseilua Ikasketa Zentroaren (CECAS) atal delegatua da. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak prestakuntza-zentro gisa aitortzen du.

Aurreko ekitaldietan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Aseguru Bitartekarien Kontseiluak (Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko aseguru-bitartekarien elkargoak osatutakoak) prestakuntza-ikastaroak antolatu eta ematen ditu aseguruak eta berraseguru pribatuak banatzeko jardueretan parte hartzen duten pertsonentzat. Horretarako, 2024. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan aurreikusten da ekarpena egingo dela horrek sortzen dituen gastuetarako, organo horri 10.000 €-ko dirulaguntza izenduna emanez, hurrengo 4 ekitaldietarako, gutxienez, hala badagokio, KPlan gertatzen diren igoeren zenbaterako berarekin.

Laguntza horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aseguruaren banaketaren jardunaren alde egin nahi da, Sail honek aseguruaren eta berraseguruaren banatzaileei ematen dien prestakuntza lagunduz. Prestakuntza honako hauei dagokienez lagundu nahi da: batetik, jarduera profesionalerako administrazio-baimena lortzeko behar diren prestakuntza-betekizunei dagokienez (1. maila banaketari dagokionez erantzukizun-ardurak dituzten pertsonentzat, eta 2. maila aholkularitzan aritzen direnentzat); eta, bestetik, lehendik jarduten dutenen etengabeko prestakuntzari dagokienez.

4.- EAEko enpresa txiki eta ertainen finantzaketa-baldintzak hobetzea.

Helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hitzarmenak sinatu izan ditu urtero hainbat finantza-erakunderekin, finantza arloan eskumenak dituen sailaren bitartez. Hitzarmenok enpresa txiki eta ertainei zein profesionali bermeak errazago emateko izan dira, eta administrazioak bere gain hartu du abala jaso duten enpresa eta autonomoek porrot egiteko arriskuaren zati bat.

2020ko punturik garrantzitsuena martxoaren 31ko 50/2020 Dekretua onartu izana izan zen. Dekretu hori, ondoren, maiatzaren 19ko 67/2020 Dekretuak aldatu zuen. Hain zuzen ere, horren bidez garatzen da enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2020ko programa, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari aurre egitekoa.

2021ean, EAEko enpresei finantza-laguntzak emateko neurriekin jarraituz, martxoaren 9ko 106/2021 Dekretua onartu zen. Horren bidez garatzen da enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional

autonomoei finantza-laguntza emateko 2021eko programa, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari aurre egitekoa.

2022an, uztailaren 5eko 83/2022 Dekretua onartu zen, zeinaren bidez enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2022ko programa garatzen baita, energiaren eta lehengaien prezioen igoeraren ondoriozko inpaktu ekonomikoari aurre egiteko. Programa berri horri esker, urtebetez luzatu ahal izan zen COVID programaren bidez formalizatutako maileguen gabealdia, hala egiteko bidea zabaltzen baitute Gobernu Kontseiluak Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei buruz hartutako erabakiek (2022ko apirilaren 12ko bileran hartu zituen).

Aipatutako dekretuen esparruan, hitzarmenak egin ziren finantza-erakunde nagusiekin eta Elkargi EBBrekin 2020,2021 eta 2022. urteetan. Hitzarmen horiei esker, 8.600 enpresak baino gehiagok finantzaketa eskuratu ahal izan zuten baldintza onuragarrietan, eta gutxi gorabehera 754 milioi euro inguruko finantzaketa-bolumena estali zen.

2024-2027 aldian, aipatutako dekretuen esparruan formalizatutako mailegu eta abaletatik eratorritako dirulaguntzen ordainketaren administrazio-kudeaketarekin jarraituko du Finantza Politikako Zuzendaritzak. Autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorrek dagokion dirulaguntza ordainduko du, horien esparruan: enpresek ordaindutako interesen % 100 eta abal-komisioaren % 50, eragiketak amaitzen diren artekoak (2020-2029), Gobernu Kontseiluak 2021eko martxoaren 9an baimendutako muga orokorra kontuan hartuta.

EAEko enpresei finantzaketa lortzen laguntzeko neurriekin jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, aurreko ekitaldietan egin duen moduan, aurreikusten du, 2024-2027 aldirako, urtean bi birfidantzamendu-hitzarmen berri sinatuko dituela Elkargi EBBrekin, EAEko ETEen inbertsio-proiektuen finantzaketari estaldura emateko. Halaber, Hitzarmen horien bitartez, Administrazioak bere gain hartuko du ETEen eta/edo banako enpresaburuen eta abala emandako enpresaburu autonomoen profesional autonomoen porrot-arriskuaren zati bat, eragiketen epemugara heldu arte.

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek urteak daramatza hitzarmenak sinatzen EAEko elkarrekiko berme-baltzuekin, erakundearen Hornidura Funts Teknikoa sendotzera zuzentzen den dirulaguntza bat instrumentalizatzeko helburuarekin; gaur egun, EAEn egoitza duen eta halako ezaugarriak dituen sozietate bakarra dago: Elkargi EBB. Horri esker, berme-baltzuak abal-eragiketa berriak formalizatzeko duen gaitasuna hobetu ahal izango da, eta EAEko enpresei finantzaketarako sarbidea erraztu ahal izango zaie.

2024an, Elkargi EBB sozietatearekin Hornidura Funts Teknikoa Indartzeko Hitzarmen berri bat formalizatzea aurreikusten da, Elkargi EBBren Hornidura Funts Teknikoa indartzeko dirulaguntza bat eman dadin ekarriko duena. Era berean, hitzarmen horiek 2027ra arte urtero berritzea espero da, aurrekontuan jasotako zenbateko berarekin.

5.– Partaidetzako mailegua indartzea, enpresentzako finantza-tresna eskuragarria izanik.

Luzaro Establecimiento Financiero de Credito SA 1992ko urriaren 30ean eratu zen, eta haren oinarritzko helburua EAEko enpresa txiki eta ertainei partaidetzako mailegu nahiz kredituak ematea da. Mailegu mota horiek mendeko finantzaketa gisa hartuak dira, eta, beraz, sozietatearen funts propioen baliokideak dira. Bada, maileguon helburu nagusia enpresa horiek aktibo finkoetan egiten dituzten inbertsioak finantzatzea da, eta oso amortizazio epe luzea izan ohi dute —normalean, hamar urtekoa, gutxieneko bost urteko gabealdiarekin—.

Luzaro EFC SArein jarduera sustatu ahal izateko zenbait lankidetzahitzarmen gauzatu dira alderdien artean, eta, maileguen amortizazio-epe luzeen ondorioz, indarrean jarraitzen dute 2006ko abenduaren 20an, 2007ko urriaren 4an eta 2012ko ekainaren 12an sinatutakoek. 2006ko abendutik aurrera, gainera, dirulaguntzak jasotzeko aukera eskaintzen da finantza-konsolidazio edo -berregituraketako maileguetan ere.

2020an finantza-lankidetzarako beste hitzarmen bat formalizatu zen Luzaro EFC SArekin beste lau urterako, eta, horrela, jarraipena eman zitzaien EAEko ETEen finantzaketarako laguntza-neurriei.

Formalizatutako hitzarmen guztietan, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen partaidetzako maileguetan ordaindu ezinik geratutako kopuruaren ehuneko bat bere gain hartzeko, bai eta Luzaro EFC SAri honakoa ordaintzeko ere: sozietate horrentzat une bakoitzean dagoen diferentziala, partaidetzamailegu bakoitzaren eta dagozkien birfinantzaketa-maileguen artean. Era berean, maileguen abal-komisioaren % 50 diruz lagunduko da, mailegu horiek elkarrekiko berme-baltzu batek emandako abala dutenean. Asmo horrekin, ekitaldi bakoitzean formalizatutako diren maileguentzako ordainketa-kreditu bat sartu eta kontabilizatu da aurrekontuan, eta gauza bera egin da etorkizuneko konpromiso-kredituekin ere, maileguen bizialdi osoan dirulaguntzari aurre egiteko.

Hitzarmen horietan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza, lehen aipatutako diferentzialaren berdina, Luzaro EFC SArein esku jarri behar da alde aurretik; alegia, urtean bitan, seihileko natural bakoitzean, konturako ordainketa gisa, ondorengo behin betiko justifikazioa eta likidazioa egin bitartean.

2024an, indarrean dagoen finantza-lankidetzarako hitzarmena berritzea aurreikusten da, beste 4 urterako, oraingoa 2024ko abenduan iraungiko baita. Hala, EAEko enpresek finantzaketa lortzen jarraituko dute, batez ere administrazioak Luzaro EFC SAK formalizatutako eragiketei mailegatutako abalaren bidez, bai eta dirulaguntzen laguntzaren bidez ere, bereziki partaidetzamaileguen finantza-kostua murrizteko helburua duena.

6.– Genero-berdintasunerako planak sustatzea enpresetan, horretarako berriazko neurriak ezarri sinatzen diren finantza-hitzarmenetan

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua, Berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana betetzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, 2024-2027 aldirako Elkargi EBB eta Luzaro EFC SArekin formalizatu beharreko finantza-hitzarmenetan honakoak sartuko ditu: erakunde laguntzaileak eta laguntza publikoaren onuradun diren enpresek izango dituzten betebeharrak jakin batzuk; Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Planei eta sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko neurriei buruzko betebeharrak betetzea.

Plan horretan jasotako ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak bat datoz XII. legegintzaldirako 2020-2024 Gobernu Programarekin. Programa horrek hiru jarduketa-printzipio aipatzen ditu; besteak beste, «ekonomia eta enplegua suspertzea». Asmo horretara bideratutako konpromiso nagusien artean dago autonomoei, mikroenpresei eta ETE-iei laguntza ematea.

IV. Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak.

Jarraian, planaren ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak zerrendatzen dira, 01/15 Zirkularren 1. eranskineko 3. apartatuko a), b) eta c) alderdiak zehaztuta:

<p>EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA 61111 Programa</p>
--

<p>Helburu estrategikoa: EAEko ekonomiaren bilakaera aztertzea</p>

<p>Dirulaguntza-lerroa: EAEko Ekonomiako Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi Sariaren II. edizioa</p>
--

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

- Ikerketa-ahalmena azalartzea eta arlo ekonomikoan talentua eta interesa duten gazteak topatzea, eta horien ikertzaile-ibilbide hasiberria erraztea.
- Ekonomia aplikatuaren ikerketa bultzatzea eta gazteen adimen-gaitasuna eta talentua aprobetxatzea EAEko ekonomia hobetzeko.
- Mundu akademikoaren eta administrazio publikoen artean zubi iraunkorrak sortzea, ateak irekiz eta beren asmamena ekonomia berritzeko eta ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko eredu, tresna eta teknika berriak sortzera bideratzen duten pertsonak sarituz.

- Gazteriaren hausnarketa eta azterketa independenteak aprobetxatzea, ekinbide publikoa hobetzeko balioko duten azterlan onak izateko.

Ekintza: EAEko Ekonomiarekin lotutako Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi saria antolatzea

Adierazleak:

- Eraginkortasuna: saria ematea, hau da, ez uztea saria eman gabe.
- Gaiarekiko egokitzapen-maila eta garrantzia: onartu diren EAEko ekonomiari buruzko tesien kopurua / sarira aurkeztutako tesien guztizko kopurua, orokorrean eta generoka bereizita.
- EAEko hedapen-maila: sarira aurkeztutako tesien guztizko kopurua / hiru unibertsitateetan Ekonomia arloan defendatutako tesien kopurua, orokorrean eta generoka bereizita.
- Ikuspegi intersektionalaren edo genero-ikuspegiaren txertatze-maila tesietan: gizarte-ikuspegia duten aurkeztutako tesien kopurua / aurkeztutako tesien kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 6.000 €

24.100.06 11000 1.61110.45100

2026. urteko ekitaldian, EAEko Ekonomiako Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi Sariaren III. edizioa antolatuko da, eta, beraz, dagokion dirulaguntza emango da. Hasiera batean, zenbateko bera eta aurrekontu-partida berak ematea aurreikusten da.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: munduko edozein unibertsitatetan EAEko ekonomiaren arloan doktorego-tesia aurkeztu duen edonor.

Emakida prozedura: lehiaketa bidezko norgehiagoka, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren aginduz deitua, sariaren oinarri arautzaileak ere onartuko dituena.

FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA
6311 Programa

1. helburu estrategikoa: 2024-2027 aldian EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspena lagundu eta sustatzea

1. dirulaguntza-lerroa: EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioari, funtzionamendurako eta bestelako sustapen-ekintza batzuetarako.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (aurrerantzean, BGAE) Federazioari laguntzea Gizarte Aurreikuspen Osagarriko jardueretan.

1. *ekintza:* gizarte-aurreikuspen osagarriak bultzatu eta lantzeko jardunaldiak antolatzea.

2. *ekintza:* EAEko BGAE Federazioak Gizarte Aurreikuspen Osagarria sustatzeko egiten duen lana babestea.

Adierazleak: EAEko BGAE Federazioak antolatutako jardunaldien kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2024: *Zenbatekoa:* 18.000 €. 06 6311 21 452 22/0904

2025-2027: zenbateko bera gehi KPI

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: EAEko BGAE Federazioa

Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak agindu bidez eman beharrekoa.

2. dirulaguntza-lerroa: Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren sustapena. Urtekoa. 2024-2027.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

1. *helburua:* lehentasunezko BGAE berriak eta enplegu modalitateko lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planak eratzen laguntzea. 5/2012 Legea, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena (BGAE), eta 252/2006 Dekretua, abenduaren 12koa, zeinaren bitartez Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak baliatuta bideraturiko aurreikuspen sozialeko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak arautzen baitira.

- 1. *ekintza:* dirulaguntza ematea, enplegu modalitateko lehentasunezko BGAEentzat eta lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planentzat ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak eratzeko eta martxan jartzeko gastuei aurre egiteko. Baldintza horiek otsailaren 23ko 5/2012 Legearen V. kapituluaren eta abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuan ezartzen dira. Gastu horiek, besteak beste, bazkideei informazioa emateko gastuak, sistema informatikoak eta

higiezinak izan daitezke, bai eta lansariak, soldatak eta notario-gastuak ere.

- 2. *ekintza*: erakunde berrira edo enplegurako gizarte-aurreikuspeneko plan berrira gehituko diren kideei gizarte-aurreikuspen osagarriko zuzeneko dirulaguntzak ematea.

Bi ekintzen adierazleak: lehentasunezko BGAEak eta enplegu modalitatean sortzen diren lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planen kopurua, eta sartutako bazkide berrien kopurua.

2. *helburua*: EAEko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren garapena laguntzea

- *Ekintza*: gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak eratu eta martxan jarri aurreko gastuetarako dirulaguntzak ematea. Gastu horiek, besteak beste, honako hauek egiteagatik izan daitezke: kanpoko aholkularitzen azterlan juridiko eta ekonomikoak, bestelako aukeren azterketak, kolektiboaren balioespenak, erabakien instrumentazioa, eta hedapen-zein sustapen-kanpainak.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

- *Zenbatekoa*: 30.000 € 06 6311 21 452 22/0903
- *Zenbatekoa*: 100.000 € 06 6311 21 244 22/0901
- 2025-2027: Zenbateko berdinak.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: EAEko BGAE, BGAEko bazkideak, eta herritarrak, oro har.

- *Emateko prozedura*: abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuan aurreikusten dena. Dekretu horrek hainbat laguntza ekonomiko arautzen ditu honako helburu honekin: borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez prestatutako gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzea; laguntza horiek gaian eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez emango dira.
- *Emakida*: dirulaguntza zuzena.

2. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru-banatzaileak sustatzen eta garatzen laguntzea, 2024-2027 aldirako prestakuntza urtero babestuz

1. dirulaguntza-lerroa: Euskal Autonomia Erkidegoko Aseguru Bitartekarien Kontseiluari, prestakuntzarako.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: Aseguru Bitartekarien EAEko Kontseiluari laguntzea aseguruak edo berraseguru pribatuak banatzeko jardueretan parte hartuko duten pertsonen zuzendutako prestakuntza-ikastaroak antolatzen.

Ekintza: Aseguru Bitartekarien EAEko Kontseiluak hainbat prestakuntza-ikastaro antolatu eta ematea.

Adierazleak: Aseguru Bitartekarien EAEko Kontseiluak emandako prestakuntza-ikastaroen kopurua eta prestakuntza-ekintza horietan parte hartzen duten pertsonen kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2024: *Zenbatekoa:* 10.000 euro, aurrekontuko partida: 06 6311 21 452 19/0787, 2025-2027: zenbateko bera, KPlaren aldakuntzaren arabera.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardueretan parte hartuko duten pertsonak.

Emateko prozedura: dirulaguntza izendunak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak agindu bidez emanak.

3. helburu estrategikoa: ETEei eta banakako enpresaburuei finantzaketan laguntzea.

1. dirulaguntza-lerroa: Luzaro EFCK formalizatutako partaidetzako maileguren interes-tasak eta abal-komisioak diruz laguntzea, baita elkarrekiko berme-baltzu baten abala duten maileguak ere, eta kobraezinak partzialki estaltzea partaidetzako mailegu guztietan.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: Luzaro EFCK partaidetzako maileguak ematea sustatzea. EAEko enpresa txiki eta ertainentzako zein banakako enpresaburuentzako finantzaketa-tresna gehigarri gisa, baita Luzaro EFC SAREN epe luzerako finantza-kontsolidaziorako maileguak ematea sustatzea ere.

Ekintza: partaidetzako maileguak emateko eta finantza-kontsolidazioan laguntzeko programa. Jarduketa zehatzak:

- Finantza-lankidetzarako hitzarmena kudeatzea

Adierazleak:

6 ordainketatan banatzea interes-tasen eta abal-komisioen gaineko dirulaguntzak.

Hitzarmenetik eratorritako ezin kobratzeagatiko lau ordainketa. Hiru hilean behin

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa:

06 6311 21 750 22/0900 595.000 €

Luzarori dirulaguntza ematea, ETEak finantzatzearen kostua (aurreko ekitaldietakoa) murrizteko (2012-2020)

06 6311 21 750 22/ 0901 188.000 €

Luzarori dirulaguntza ematea, ETEak finantzatzearen kostua (aurreko ekitaldietakoa) murrizteko (2021)

06 6311 21 750 22/ 0810 195.000 €

Luzarori dirulaguntza ematea, ETEak finantzatzearen kostua (aurreko ekitaldietakoa) murrizteko (2022)

06 6311 21 750 23/ 0036 195.000 €

Luzarori dirulaguntza ematea, ETEak finantzatzearen kostua (aurreko ekitaldietakoa) murrizteko (2023)

06 6311 21 750 23/1246 90.000 €

Luzarori dirulaguntza ematea, ETEak finantzatzearen kostua (2024ko ekitaldikoa) murrizteko.

06 6311 23 904 22/ 0803 500.000 €

Luzaro EFCk betearazitako bermeak

Luzarok formalizatutako maileguren finantza-kostuaren dirulaguntzaren kostuari dagokionez, aurreikusten da 2025-2027ko aurrekontuan jasotako urteko gastu-kredituaren zenbatekoa 2024ko bera izango dela. Konpromiso-kredituengatik dirulaguntzaren zenbatekoa finantzaketaren interes-tasen etorkizuneko bilakaeraren arabera izango da.

Luzaro EFCren gauzatutako bermeei aurre egiteko 2025-2027ko aurrekontuan sartutako urteko kreditua 2024koaren bera izango da, ordainketa-aurreikuspenen arabera.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: enpresa txiki eta ertainak eta banakako enpresaburuak.

Emateko prozedura: 2020ko abenduaren 23ko finantza-lankidetzarako hitzarmena, EAEko Administrazio Orokorraren, finantza-erakundeen, elkarrekiko berme-baltzuen eta Luzaro EFC SAREN artean. Hitzarmenak 4 urteko indarraldia du (epemuga: 2024). 2024an, amaitzean, hitzarmen berri bat formalizatzea aurreikusten da beste 4 urterako.

2. dirulaguntza-lerroa: kobraezinak estaltzea, eta elkarrekiko berme-baltzuetako Hornidura Funts Teknikoa indartzea

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: elkarrekiko berme-baltzuen jarduera indartzea, beren bazkideei (enpresa txiki eta ertainei edo banakako enpresaburuei) finantzaketa eskuratzen laguntzen dieten erakunde mutualista diren aldetik.

Ekintza: enpresa txiki eta ertainei zein banakako enpresaburuei finantzaketa-kostuak murrizten laguntzea, erakunde horiek emandako abala duten arriskuen birfidantzamendua eginez. Jarduketa zehatzak:

- 2024rako beste 2 birfidantzamendu-hitzarmen formalizatzea. Hala, 2025-2027 aldirako, urtean bi hitzarmen berri formalizatzea aurreikusten da
- Hitzarmenak betetzea aldizkako likidazioak eginez
- Elkargi EBBren Hornidura Funts Teknikoa sendotzeko dirulaguntza izenduna egituratuko duen hitzarmen berri bat formalizatzea. Era berean, 2025-2027 aldirako Elkargi EBBrekin hitzarmen berriak formalizatzea, Hornidura Funts Teknikoa indartze aldera.

Adierazleak:

2 birfidantzamendu-hitzarmen berri.
Hitzarmen bat, hornidura teknikoak sendotzeko
4 ordainketa, hitzarmenetik eratorritako kobraezinetarako (hiru hilean behin)
Ordainketa bat, Hornidura Funts Teknikoa sendotzeko

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

06 6311 23.904 22/ 0804 3.656.393 €
Birfidantzamendu-hitzarmenak

06 6311 21 750 22/ 0800 150.000 €
Hornidura-funts teknikorako dirulaguntza izenduna

2025-2027 aldia. Elkargi EBBri zenbateko bera duten dirulaguntza izendunak ematea aurreikusten da, Hornidura Funts Teknikoa indartze aldera.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: elkarrekiko berme-baltzuak, baita ETEak eta banakako enpresaburuak ere.

Emateko prozedura:

2 birfidantzamendu-hitzarmen oinarritzko eta osagarri berri Elkargi EBB sozietatearekin, 2024ko ekitaldian formalizatutako finantza-abaletarako.

Elkargi EBBren hornidura-funts teknikoak indartzeko dirulaguntza izenduna egituratzeko hitzarmen bat, EBBk ekitaldian izan duen abal-jarduerari lotua.

3. dirulaguntza-lerroa: elkarrekiko berme-baltzu batek abala emandako maileguen interes-tasa eta abal-komisioa diruz laguntzea, dekretu hauen

esparruan: alde batetik, martxoaren 31ko 50/2020 eta martxoaren 9ko 106/2021 dekretuak, zeintzuen bidez enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko 2020. eta 2021. urteetarako laguntza-programa bana antolatzen baita, COVID-19aren ondoriozko inpaktu ekonomikoari aurre egiteko; eta, bestetik, 83/2022 Dekretua, 2022ko uztailaren 5ekoa, zeinaren bitartez enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak babesteko programa garatzen baita, energiaren eta lehengaien prezioen igoerari aurre egiteko.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen finantzaketa-kostua murriztea dekretu hauen esparruan: alde batetik, 50/2020 eta 106/2021 Dekretuak, zeintzuen bitartez enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak babesteko programak antolatzen baitira 2020. eta 2021. urteetarako, COVID-19aren ondoriozko inpaktu ekonomikoari aurre egiteko; eta, bestetik, 83/2022 Dekretua, 2022ko uztailaren 5ekoa, zeinaren bitartez aurre egiten baitzaio energiaren eta lehengaien prezioen igoerari.

Ekintza: enpresa txiki eta ertainentzako eta banakako enpresaburuentzako finantzaketa-kostua murrizteko laguntza. Jarduketara zehatzak:

- dirulaguntzen ordainketaren administrazio-kudeaketa. Aurreko ekitaldietako konpromisoak
- 2020an, 2021ean eta 2022an Elkargi EBBrekin eta finantza-erakundeekin formalizatutako lankidetzak-hitzarmenak betetzea, enpresentzako dirulaguntzen aldizkako likidazioekin.

Maileguak 2029 iraungitzen direnez, dirulaguntzak likidatzen jarraituko da 2024-2027 aldian, onartutako finantza-lankidetzako dekretu eta hitzarmenen babesean.

Adierazleak:

Ordainketa bat urtean, abal-komisioko dirulaguntzak likidatzeko.

Ordainketa bat hilean, interesen dirulaguntza likidatzeko (finantza-erakunde bakoitzeko bana).

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

06 6311 21 750 21/ 0802 1.281.706 €

Abal-komisorako dirulaguntza, Elkargi EBB 2023-COVID-19 Programa. Aurreko ekitaldietako konpromisoak

06 6311 21 751 21/ 0803 15.229.000 €

ETEn finantzaketa-kostua murrizteko dirulaguntza. Interes-tasa. COVID-19 Programa. Aurreko ekitaldietako konpromisoak

Laurtekorako aurrekontua Gobernu Kontseiluak 2023ko martxoaren 9an baimendutako muga globalera egokituko da (63.640.212 €), programan aurreikusitako kostuari (2021-2029) aurre egiteko. Dena den, epealdiko behin betiko gastua interes-tasen bilakaeraren arabera izango da, dirulaguntzak ordaintzeko aurreikuspenak gehien zehazten dituen aldagaia den aldetik.

2021-2023 aldian gastu gisa kontabilizatutako zenbatekoa 30.628.323 €-koa izan da. 2024ko aurrekontua kontuan hartuta (16.510.000 €), 2025-2029 aldirako zenbatekoa 16.501.889 €-koa izango litzateke; horietatik, 13.959.361 € 2025-2027 aldiari legozkioko.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: enpresa txiki eta ertainak eta banakako enpresaburuak.

Emakida lortzeko prozedura: dekretuak eta finantza-erakundeekin eta Elkargi EBBrekin 2020, 2021 eta 2022. urteetan formalizatutako finantza-lankidetzako hitzarmenak, dekretuen esparruan.